

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO UDALA

Ur hornikuntzako tasaren eta estolderia eta arazketako tasaren 2018ko bigarren lauhilekoa jendaurrean jartzea eta kobratzea

Juan Carlos Medina Martínez, Añanako Udaleko alkate naizen honek (Añana, Araba),

Jakinarazten dut: 2018ko irailaren 15etik irailaren 30era arteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2018ko bigarren lauhilekoko tasa hauek:

- Ur horniduraren tasa.
- Estolderia eta arazketaren tasa.

Ordainketa helbideratuta eduki ezean, borondatezko epean banku bulegoetara joanez egin ahal izango da ordainketa, hain zuzen, etxean jasoko den kobrantza abisuan aipatzen diren bulegoetan.

Era berean, zergadunei jakinarazten zaie ordainketa banketxe eta aurrezki kutxen bidez helbideratu ahal dutela, hala xedatzen baitu Diru-bilketaren Arautegiak.

Ordaintzeko epe hori bukatutakoan, premiamenduko betearazte bidea hasiko da, eta ordaindu gabeko kuotak ehuneko 5eko errekaruarekin kobratuko dira, hala xedatzen baitu aipatutako arautegiak 96. artikuluan.

Gesaltza Añana, 2018ko irailaren 11

Alkatea

JUAN CARLOS MEDINA MARTÍNEZ